

## UBM, 28

### [BEGIAK ZABALIK]

Begiak zabalik begiratzen dut kalea.  
Etxe ertz zurrinak argia ebakiz bakoitzak  
alboko ormari;  
ormak aurpegi kolore askotarikoz  
argiaren bila.

(Ez dute gizamosu bat ere leihoek ageri)  
Begiak zabalik

begiratzen dut.

Ormen burruka ormaz orma doa,  
zeinek zein azpitan hartu,  
zeinek zeini ihesi

kale luzea zehar,  
elkarren ondoren ezpata bertikalez  
nahiz horizontalez.

Begiak zabalik begiratzen dut orain IBERIA  
dioen anuntzio tzarra

etxediz [sic] gorako dorre koadratu baten  
goreneko puntan  
dirdari.